

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 13. xedapen-aldaketaren hasierako onespeneraren aurka aurkeztutako alegazioa ebatzea, zein hirugarren sektoreko hotel-erabilerari dagokion**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean egindako ohiko bilkuran:

1. ARABATURren ordezkariak Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamahirugarren xedapen-aldaketaren aurka 2020ko ekainaren 2an aurkeztutako alegazioa zati batean onestearen aldeko txostena egitea, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Hirigintza Kudeaketako buruak 2020ko uztailean egindako txostena ikusirik, non turismo erabilerako etxebizitzak eraikin osoetan baimentzen diren.

2. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeitau egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 10ean

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**